

# → AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 54. alea

DATA: 2025/11/21

## GUREAN

### LITERAKTUM TXIKIA LITERATUR JAIALDIA

Asteburu honetan Literatur jaialdia ospatzen ari da Donostian eta barruan haurrei zuzendutako hainbat ekintza antolatu dira. Larunbatean Ipuin Kontalarien XI. Maratoian egingo da San Jeronimo aretoa (San Jeronimo kalea, 18). Maratoiaren hamaikagarrena den honetan lau saio berezi eskainiko dira:


11:00. Oihana Etxegibel. Ipuin kontaketa saioa. 2-4 urte

12:00. Ines Bengoa. Kamishibai. 4-8 urte

17:00. Nerea Ariznabarreta eta Mariano Hurtado. Bertoko eta urrutiko ipuinak. 8-14 urte.

Horrez gain, 18:00etan 15 urtetik gorakoentzat Maider Alcey eta Igor Salaren **Emeem kemen** narrazio saio musikatua izango da.

Jaialdiaren web orrian izena eman: <https://www.literaktum.eus/>



## GURE INGURUAN

### VI.EUSKAL HERRIKO AURRESKU TXAPELKETA

**NOIZ: AZAROAK 23**

**NON: HONDARRIBIA - ITSAS ETXEA AUDITORIOA**

6.edizioa, Euskal Herriko Aurresku Txapelketa Gipuzkoar erara bikoteka.



## BAZENEKITEN?

### BIRZIKLAPENA NOLA EGIN?



San Marko Mankomunitateak birziklatzearen inguruko sentsibilizazio-kanpainaren bigarren edizioa abiarazi du nerabeen artean. Aste honetan eta hurrengoan DBHko 4. mailako ikasleekin bilduko dira.

Helburua da ikasleek hiri-hondakinei buruzko ezagutzak zabaltzea da, hondakinen murrizketa, berrerabilera eta birziklapena azpimarratuz.

**ZUEN PROPOSAMENAK  
HONA BIDALI:  
[melvira@herriametsa.eus](mailto:melvira@herriametsa.eus)**